

«Helmuga Basauri Pintxo Festa»k herriko merkataritza eta ostalaritza sustatu eta dinamizatuko ditu, azaroaren 15etik 17ra bitartean

- Guztira, 85 ostalaritza-establezimenduk hartuko dute parte 2019ko «Helmuga Basauri PINTXO FESTA»n
- *Helmuga Basauri Pintxo Festa Gida* editatu eta banatuko da Bilbo Handian, eta informazio osoa egongo da helmugabasauri.com webgunean
- Kalea girotzeko jarduerak egongo dira larunbat eta igandean
- «Helmuga Basauri» Pintxo Txapelketan 41 sormen gastronomiko egongo dira, 41 establezimendutan. Piperra, orburua eta/edo perretxikoak izango dira pintxoon protagonista

Herriko merkataritza eta ostalaritza sustatu eta dinamizatzeko planaren barruan — «Helmuga Basauri»—, «Helmuga Basauri Pintxo Festa 2019» antolatu du Basauriko Udalak. Ekimena azaroaren 15etik 17ra bitartean izango da, eta udalerriko ostalaritza zein pintxoetan oparoak diren lokal ugariak baliatuko dituzte jendea erakartzeko Basaurin kontsumitzera eta familia-aisialdiaz gozatzera.

«Helmuga Basauri Pintxo Festa 2019»k, beraz, Basauri sustatuko du hiru egunez, herriko pintxoetan eta ostalaritza-eskaintza zabalean oinarrituta. Sektore hori bultzatzeaz gain, basauriarrei eta Bilbo Handiko herritarrei zuzendutako ekimenak bilatzen du dendetako kontsumoa handitzea eta Basauriko kultura-, kirol- eta aisialdi-eskaintza interesgarria ezagutzera ematea.

Helmuga Basauri Pintxo Festa 2019 Gida editatzea eta banatzea izango da, berriro ere, ekimenaren osagai nagusietako bat. Basauriko ostalaritza-establezimendu guztiek izan dute parte hartzeko aukera, eta, aurtengoan, 85ek egin dute bat proiektuarekin. Gidan honako hauek jaso dira, besteak beste: parte hartuko duten establezimenduen izena eta posta-helbidea, beren kokapena islatzen duen mapa eta kanpainarako aurreikusitako kultura-, kirol- eta aisialdi-egitaraua.

Helmuga Basauri PINTXO FESTA 2019 Gida Basauriko eta Bilbo Handiko denda eta tabernetan banatuko da, eta helmugabasauri.com helbidean ere kontsultatu ahalko da. Gainera, ekimenaren bereizgarria jarriko da parte hartzen duten establezimenduetan eta Basauriko toki esanguratsuetan, etaparte-hartzaileek diploma jasoko dute (ekimenaren laguntzaile izan direla egiaztatzeko).



Bestalde, «Helmuga Basauri» Pintxo Txapelketaren bigarren edizioa izango dugu aurten, non 41 pintxok hartuko duten parte. Establezimendu bakoitzak txapelketarako pintxo bat sortu beharko du, eta pintxo horrek sasoiko honako osagaietako bat izan beharko du, gutxienez: piperra, orburua eta/edo perretxikoak.

Basauriko sozietate gastronomikoetako kideek eta Bizkaiko gastronomiako aditu eta kazetariak osatutako epaimahai batek 10 pintxo finalistak hautatuko ditu ostiralean, eta larunbatean pintxo irabazlea hautatuko dute, establezimenduetan bertan pintxo finalista horiek dastatu eta gero.

Txapelketara aurkeztutako pintxoak eskaini beharko dira «Helmuga Basauri Pintxo Festa 2019» ekimenak irauten duen egun guztietan zehar. Irabazleek diploma jasoko dute, eta kategoria desberdinetan irabazle diren pintxoak erabili ahalko dira «Helmuga Basauri»ren 2020ko edizioa sustatzeko irudi gisa.

«MUSIKA KALEAN», musika & pintxoak

«Helmuga Basauri Pintxo Festa 2019»ren osagarri gisa, «MUSIKA KALEAN» izango dugu: kalea girotzeko musika-progamazioa, helburu izango duena jendea erakartzea ostalaritza eta merkataritzaren ikuspuntutik esanguratsuenak diren herriko zortzi gunetara.

«MUSIKA KALEAN»ek zuzeneko bost kontzertu eskainiko ditu (popa, rocka eta bertsioak), bost agertoki desberdinetan. Horrez gain, Basauriko Musika Eskolak koordinatutako hiru kalejira egongo dira, eta beste bat Udondoko Txikiteroak Abesbatzarekin. Azaroaren 16an (larunbata) eta 17an (igandea) izango da hori guztia.

Azaroak 16 (larunbata)

13:00 Pery Fly (*pop & rock*)

Kareaga Goikoa

13:00 Bilbobillies

(country & rockabilly)

Solobarria plaza

13:00 My bastard friend (*pop & rock*)

Balendin Berriotxo

13:30 Music-box (*rock & roll*)

Galizia

13:30 Lee junior (*rock & roll*)

Begoñako Andramari

19:00 Trikitixa kalejira Basauri Musika Eskola

Kareaga + Basozelai

19:00 Trikitixa kalejira Basauri Musika Eskola

San Migel

19:00 Trikitixa kalejira Basauri Musika Eskola



Arizgoiti + Benta + Solobarria

Azaroak 17 (igandea)

13:00 Udondoko Txikiteroak Abesbatza

Kalejira